

# HAUR HEZKUNTZAN ZENBAKIAK IKASTEKO CLIC JARDUERAK

Montse Vega 1997  
mvega@pie.xtec.es

Haur Hezkuntzako 3-6 bitarteko mailetan erabiltzeko jarduera sorta batzuk osatzen dute programa hau, eta zenbakiak eta kalkulua lantzeko hiru arketa multzo biltzen ditu.

Ondoko eskema honetan aipatuko ditudan adin egokitasunak gutxi gora beherakoak dira, eta beti ere irakaslea izango da erabakiko duen eman nahi dion erabileraren arabera zein adinerako iruditzen zaion egokia.



*Kopuruaren kontzeptua eta 1etik 3ra arteko zenbakiak lantzeko jarduerak.*

*3-4 urteko haurrentzat.*



*Kopuruaren kontzeptua eta 0tik 5era arteko zenbakiak lantzeko jarduerak.*

*4-5 urteko haurrentzat.*



*Kopuruaren kontzeptua eta 0tik 10era bitarteko zenbakiak lantzeko jarduerak, eta batuketa eta kenketa kontzeptuak ezagutzeko hastapenak. Batuketaren algoritmo horizontala ere lantzen da.*

*5-6 urteko haurrentzat.*

## **BADAKIT KONTATZEN ! (1, 2, 3)**

Kopuruaren kontzeptua eta 1, 2 eta 3 zenbakiak lantzeko 9 jarduera biltzen dira sorta honetan.

3 eta 4 urteko haurrentzat prestatuak daude, eta horregatik ahalik eta gehien erraztu da Clic programaren pantaila. Botoi guztiak kendu dira, eta dagoen bakarrak hurrengo jarduerara joateko balio du. Halere, ariketa ongi burututakoan segundu gutxi batzuen ondoren hurrengora joaten da automatikoki.

Hiru motatako asoziazio ariketa daude:

- Kopuru bera irudikatzen duten marrazkiak elkarlotu behar dira.
- Zenbaki berdinak elkartu.
- Zenbakia eta kopurua elkartu.

Hiru kopuruak, 1, 2 eta 3 hurrenkeran antolatzeko ariketa bat ere badago.

Jarduera bakoitzean aginduen barran agertuko da egin beharreko lana sinbolizatzen duen ikonoa.

## **BADAKIT KONTATZEN ! ( 0tik 5era)**

Kopuruaren kontzeptua eta 0, 1, 2, 3, 4 eta 5 zenbakiak lantzeko jarduerak.

4-5 urteko haurrentzat pentsatuta daude.

Lau motatako jarduerak biltzen ditu:

- Kopuru bera irudikatzen duten multzoen irudiak elkartu behar dituzte ikasleek, hala nola partxiseko fitxak, fruitak, pertsonaiak...
- Kopurua eta zenbakia elkartu.

- Zenbakiak : “Zenbakia bilatu...” Zenbaki salda batean eskatzen zaion zenbakia bilatu behar da. Formato berean lantzen dira jarduera sorta honetan ikasi beharreko sei zenbakiak.

- Kopurua identifikatu: “Non daude?” Halako elementu kopurua dagoen laukia bilatu behar da.

Jarduera bakoitzean aginduen barran ikono bat azaltzen da, egin beharreko ariketa sinbolizatzen duena.

## **GOAZEN ZENBAKIEKIN JOLASTERA! ( 0tik 10era)**

Kopuruaren kontzeptua eta 0tik 10era arteko zenbakiak lantzeko 16 ariketa biltzen ditu jarduera sorta honek, eta batuketa eta kenketa eragiketen hastapenak egiteko ariketak ere bai.

5 eta 6 urteko umeentzat.

Sei motatako jarduerak biltzen ditu:

- Zenbakiak eta kopuruak elkarlotu.
- Ondo antolatutako zenbaki zerrenda batean falta den zenbakia bilatu.
- Batuketa soil batzuk, irudien laguntzarekin planteatuak.
- Kenketaren kontzeptuaren hastapenak: “Zenbat falta dira?”
- 0tik 9ra arteko zenbakiak ordenatu.
- Ondorio bereko batuketa soilak erlazionatu.

Jarduera bakoitzean, egin beharreko lana sinbolizatzen duen ikonoa azaltzen da aginduen barran.